

kultur
gida

Uda
2016



DEBAKO UDALAK

tokian tokikoa bultzatuz
www.deba.eus

SARRERA

Uda heldu da eta udarakin batera zuen gozamenerako prestatutako ekimenak.

Guztion nahia da uda koloretsua pasatzea eta nola ez bakoitzak bere erara gozatzeko aukera izango du egitarau zabal honekin.

Ezagutu zer dagoen hemen esku artean duzuen agendan. Bertan, txoko ezberdinetan, erakunde eta elkarte ezberdinek antolatutako ekimen anitzak izango dira: kulturazkoak, kirolezkoak, denbora pasakoak eta nola ez, haur eta gazte, nagusi, emakume zein gizonentzako, herritar guztien gozamenerako.

Uda ona igaro.



Uztaila

 zinea



1

“AMAMA”

Uztailak 1, ostirala - 21:30
KULTUR ELKARTEAN

Euskaraz (subtitulada en castellano)



Familia bat, bi mundu. Jatorri bat, bi norabide. Baserria eta kalearen arteko gatazka, tradizioaren eta bizimodu berriaren arteko talka, guraso eta seme-alaben arteko ezin ulertua. Bizitza ulertzeko eta bizitzari aurre egite bi modu, elkarren aurka. Eta badoan mundu baten eta badatorren beste baten aurrean, lekuko isil, amama.

Una historia familiar. El conflicto entre dos generaciones, entre lo urbano y lo rural, entre el pasado y el presente.

VIII. DEBA ORBEA XTREME TRIATLOIA



2

Uztailak 2, larunbata
15:45 Neskak
16:00 Mutilak

IX. DEBAKO ITXAS MILA

Mutriku-Deba itsas zeharkaldia

3



Uztailak 3, igandea - 12:00

 margoa

Willy Berasaluze



uztaila
abuztua

“Hutsuneak”
erakusketa

Santa Maria elizako klaustroan

 ikastaroak

4-29

DEBAKO
ARTE ESKOLA

- Grabatu kalkografiko ikastaroa
- Litografiako lantegia
- Serigrafiako lantegia



uztailaren
4tik 29ra




dantza



“ITSAS LAPURRAK”

HAATIK DANTZA KONPAINIA



8

Uztailak 8, ostirala - 22:00

Euskaldunok harreman berezia izan dugu beti itsasoarekin. Nabigatzaile trebeak izan gara arrantzarako zein merkataritzarako, baina baita itsaslapurretarako ere. Zaila zen hiru jarduera horiek bereiztea. Ontzi askok burdina eta tresnak Lisboara edo Arroxelara eramanez hasten zuten bidaia, han gero balearen eta bakailaoaren arrantzarako beharrezkoa zutenaren truke aldatzeko.

Baina arrantzarako bidean ahulagoa zen etsairen bat ikusiz gero, kortsario ere bihurtzen ziren harrapatutako ontzia etekinen poltsara gehitzeko.

Los vascos hemos sido hábiles navegantes, tanto en el sector pesquero como en el comercial. Pero también en la piratería...

9

musika

“BARROKORAKO PINTURA ETA MUSIKA”

“PINTURA Y MÚSICA PARA EL BARROCO”

Uztailak 9, larunbata - 20:00
Santa Maria elizan

Organojolea:
DANIEL OYARZABAL



"ERRIMATUZ GARENERA ARRIMATUZ"

15

Uztailak 15, ostirala, 22:00



"Errimatuz, garenera arrimatuz" kantu proiektu bat da, non oinarri musikalen eta gitarra-
ren laguntzarekin, bat bateko eta aurrez landu-
tako hip-hop kantak egiten dituen Oskar Estan-
gak, denak bere sormenekoak.

Baina kantu proiektu izateaz gain, solasaldia
ere bada, kantu ezberdinen gaien inguruan en-
tzulegoari luzatzen zaizkion bakarrizketak ere
agertzen dira.

Bizitzan oinarritua, garenera arrimatua!
*Letras improvisadas a ritmo y música de
hip-hop.*

16 MODA DESFILIA



Uztailak 16,
larunbata
20:00

Zumardiko
Kioskoan

16

BANDAREN DANTZALDIA

Foruen
Plazan

Uztailak 16,
larunbata
23:00



musika kubatarra “HAVANA 537”

17

eta
abuztuak

7



Zumardiko kioskoan
Uztailak 17 eta abuztuak 7
20.00

Kontzertuaren aurretik:
DANTZA IKASTAROA

musika

“NEIGHBOR”



Maite Larburu eta **Josh Cheatham** dira bikote hau osatzen dutenak. Jazz, folk eta pop musiketarik edaten dute, eta batzuetan jazz estandarretatik hurbil badabilta ere, beste une batzuetan ez dituzte hain ageriko bideak erabiltzen, intimismo gozoaren eta nostalgjaren uretan igeri.

Jazz, folk y música pop.

Uztailak 22, ostirala - 22:00

22



Afrika Maliko San-eko umeen eskolatzaren onerako
kontzertu solidarioa



concierto solidario
 en beneficio de la escolarización de los niños de San en Mali, África

Magnificat y Gloria de A. Vivaldi
 Aitzuri Abesbatza, Kamara Orkestra eta Solistak
 Zuzendaria: Ander Simal Alberdi

2016ko
 uztailaren 23an
 20:30ean
 Debako
 Santa Maria
 Eliz Parrokian

(Sarrerak aldez aurretik salgai Turismo Bulegoan 8€-tan,
 egunean bertan 10€-tan)



Uztailak 23, larunbata - 20:30
 Debako Santa Maria Eliz Parrokian

 **musika**

**“EUSKAL BALEONTZIAK
 ETA MUSIKA LURRAREN
 MUGALDEAN”**

24



**“LOS BALLENEROS VASCOS
 Y LA MÚSICA EN LOS CONFINES
 DE LA TIERRA”**

Organojolea:
JOSÉ LUIS ECHECHIPIA

Uztailak 24, igandea - 20:00
 Santa Maria elizan

 **literatura**

**“DEBA eta SAN ROKE”
 liburuaren aurkezpena**

Presentación del libro “DEBA Y SAN ROKE”

29

Uztailak 29,
 ostirala
 21:30
 Plaza Zaharrea



**30 BANDAREN
 KONTZERTUA**

Uztailak 30,
 larunbata
 20:00
 Klaustroan



Abuztua

III. SURFING DEBA FESTA

Abuztuaren 5, 6 eta 7an



Euskal Sup Race
Zirkuitua 2016

6



Euskadiko Stand Up Paddle txapelketa

CAMPEONATO DE EUSKADI
STAND UP PADDLE

Abuztuaren 6an

DEBAKO XXXIII. UDAKO MUSIKALDIA

4-11-
25



Abuztuak 4, 20:00etan
Santa Maria Elizako klaustroan
BAY TRÍO
(Biolín, tronpa eta piano hirukotea)



Abuztuak 11, 20:00etan
Santa Maria elizan
**ANA BELÉN GARCÍA &
HONDORE ABESBATZA**



Abuztuak 25, 20:00etan
Santa Maria elizako klaustroan
ANDONI MERCERO
(Soka laukotea)



6-10

ITZIARKO KOPRAIXAK


14-19

SAN ROKE JAIAK



Iraila

zinea/musika/antzerkia



Un zoom a la memoria de la familia. Un espectáculo que combina concierto, cine y teatro de objetos.

2



“ZUEK”

Irailak 2, ostirala - 21:30

Gure arbasoek merezi duten omenaldia, gure gurasoei gorazarre... familia memorian egindako zoom-a. Feriante karpa baten sarreran zera dion afixa ikusi duzu: “Cinema of memories”. Zinema itinerante batetan sartuko zara orduan. Kontzertu, zinema eta objektu teatroaren artean kokatzen den ikuskizuna da Zuek. Bere unibertsoan jasoko zaituen pertsonaia musikari eta soinu sortzaile bat da, proiektatzen diren super 8 filmeetako heroi anónimoentzat konpositore.

HELDUEN KONTAKETAK

9

Herriko ipuin kontalariak bi urte daramatzate ispiluen gelan umeentzako ipuinak kontatzen. Hilabetean behin, bi urtez, hutsik egin gabe.

Helduentzako kontaketaekin egingo dute proba orain. Iturri ondoan, gauetz eta kalean, era askotako istorioak kontatuko dizkigute: poetikoak batzuk, arruntagoak beste batzuk, ... barrea tarteka, emozioa uneka eta denbora pasa atsegina eskaini nahian beti.



El grupo de cuentacuentos de Deba lleva dos años contando cuentos mensualmente a nuestr@s pequeñ@s. Esta vez lo harán para los adultos.

“HIRI ASKO BERE BAITAN”



**Irailak 2,
ostirala
21:30**

Aitzol Mugika eta Andoni Alonso musikariekin eta Kepa Errasti aktorearekin batera zuzeneko emanaldia; argazki eta bideo proiektzioak, abestiak eta antzerkia nahasten dituen diziplina anitzeko ikuskizuna, ikusleei unibertso bisual, literario eta soinudun berezian murgiltzeko aukera eskainiz.

23

“BEGIRADAK-3”

Irailak 23, ostirala, 21:30

Hasierako toki berreskuratuz, 3. urtez, irudiak eta hitzak batuko ditugu iturri ondoan. Herriko sortzaileak lanean aritu dira, bakoitza bere disziplinatik (hitza, dantza eta irudia), kontzeptuei euren ikuspegia emanez. Irudi originalak, hitz sortu berriak, dantza koreografia berezkoak, ... denak, propio ekitaldi honetarako prestatuak. Gozatu.


Un acto que combina la palabra, la imagen y la danza en un proceso creativo propio para la ocasión.



DEBA
2016

Irailak 24, larunbata

**EVSKAL
JAIA**



DEBA

SAN ROKE 2016: KARTEL LEHIAKETA • CONCURSO CARTELES

JAI BATZORDEAK URTERO OSPATZEN DIREN SAN ROKE JAIK DIRELA ETA, KARTEL LEHIAKETA ANTOLATU DU ONDORENGO OINARRIEKIN:

1. Nahi duen edonork har dezake parte. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkez ditza.
2. Lan horiek edozein teknika edo material erabiliz egin daitezke.
3. Kartelek, nahitaez argitaragabeak izan beharko dute, hau da, norberak sortutakoak eta lanaren aurkezleak izango du erantzukizun osoa baldintza hori ez betetzearen ondorioz gerora gerta daitekeen edozein erreklamazioren aurrean.
4. Lanak ondorengo neurrietan aurkeztu beharko dira: 450 mm. zabal x 680 mm. altu.
5. Lehiaketara aurkeztuko diren kartelek, nahitaez "ABUZTUAK 14-19. 2016ko SAN ROKE JAIK. DEBA" izenburua eraman beharko dute.
6. Lanak sinatu gabe aurkeztu beharko dira eta aparteko kartazal batean jarriko dira egilearen datu hauek: jaiotze data, NANa eta herria, helbidea eta telefona
7. Lanak aurkezteko epea 2016ko uztailaren 15etik 20ra.
8. Lanak helbide honetara bidali beharko dira: Debako Udala - Kultura Saila, Portu kalea 1, 20820 DEBA.
9. Epaimahaia Debako Udalak izendatuko du.
10. Kartel irabazlea bakarrik sarituko da eta 500 euro jasoko ditu.
11. Saririk lortzen ez duten lanak, epaimahaiak bere erabakia emateko ondorengo hilabetean jasoko dira. Epe hori igarotakoan lanak ez baldin badira jaso, egileak kartelak Debako Udalaren esku uzten dituela ulertuko da.
12. Saria hutsik gera daiteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek ez balute behar adinako kaliterik edo baliorik
13. Saria San Roke jaietako programaren aurkezpenaren emango zaio irabazlearen egileari
14. Saritutako lana Debako Udalaren jabetzarako geldituko da eta hark San Roke Jaieen garapena sustatzeko nahi duen edo egoki irizitako erabilera eman ahal izango dio.
15. Ez dira onartuko oinarri hauek betetzen ez dituzten edo baldintza hauetara egokitzen ez diren lanak.
16. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla adierazi nahi du.
17. Epaimahaiak erabakiko ditu oinarri hauetan agertzen ez diren arazo guztiak eta hoiere erabakia- ren aurka jotzerik ez da egongo.

CON MOTIVO DE LAS FIESTAS DE SAN ROKE, "JAI BATZORDEA" HA ORGANIZADO UN CONCURSO DE CARTELES CON LAS SIGUIENTES BASES:

1. Todo aquel que lo desee podrá participar en el concurso, pudiendo presentar un máximo de tres trabajos
2. Puede utilizarse cualquier técnica y material
3. Los carteles no deben de haberse publicado anteriormente, han de ser de creación propia. En caso de no cumplir este requisito, las reclamaciones que pudieran surgir correrán a cargo de quien presente los carteles.
4. Los trabajos deberán de presentarse en formato de 450mm de ancho y 680mm de alto
5. Todos los carteles que se presenten deberán de llevar el título "ABUZTUAK 14-19. 2016ko SAN ROKE JAIK. DEBA"
6. Los trabajos deberán de presentarse sin firmar y en un sobre aparte se incluirán los siguientes datos: fecha de nacimiento, DNI, población, dirección y teléfono.
7. Los trabajos se presentarán entre el día 15 y 20 de julio de 2016.
8. Los trabajos deberán de presentarse en el Ayuntamiento de Deba - Departamento de Cultura, calle puerto nº 1, 20820 Deba.
9. El jurado lo nombrará el Ayuntamiento de Deba
10. Únicamente se premiará al cartel ganador, siendo el premio de 500 euros.
11. Los trabajos no premiados dispondrán de un mes de plazo para ser retirados, a partir de la decisión del jurado. Finalizado este período, todos aquellos carteles que no hayan sido retirados por su autor se entenderá que quedan en posesión del ayuntamiento de Deba.
12. El premio puede quedar desierto si el jurado considera que los trabajos presentados no ofrecen la calidad deseada.
13. El premio será entregado al ganador durante la presentación del programa de San Roke
14. El trabajo premiado quedará en posesión del Ayuntamiento de Deba y éste lo utilizará para la promoción de las fiestas de San Roke, dándole el uso que él mejor considere.
15. No se aceptarán aquellos trabajos que no cumplan o acepten estas bases.
16. La participación en este concurso significa la aceptación de estas bases.
17. El jurado estudiará y decidirá todos aquellos casos que no aparezcan en estas bases y no se podrá actuar en su contra.

Udako agenda 2016

	Eguna	Ekintza	Tokia	Ordua
uztaila	Uzt-Abuzt.	Wylly Berasaluzeren erakusketa	Klaustroa	-
	1	Iturri ondoan: "Amama"	Plaza zaharra	21:30
	2	VIII. Deba Orbea Xtreme Triatloia	Hondartza	15:45
	3	IX. Debako Itxas Mila	Mutriku-Deba	12:00
	5	Puski eta Txurruki pailazoak	Kioskoa	19:00
	4-29	Debako Arte Eskola ikastaroak	Arte Eskola	-
	6	Feria de los sabores	Zumardia	-
	8	Iturri ondoan: "Itsas lapurrak"	Plaza zaharra	22:00
	9	Kontzertua: "Barrokorako Pintura eta musika"	Eliza	20:00
	11-17	Erakusketa: Lourdes González Martín	Erakusketa gela	18:00
	15	Iturri ondoan: "Errimatuz garenera arrimatuz"	Plaza zaharra	22:00
	16	Moda Desfilea	Kioskoa	20:00
		Bandaren dantzaldia	Foruen plaza	23:00
	17	Musika kubatarra: "Havana 537"	Kioskoa	20:00
	22	Iturri ondoan: "Neighbor" kontzertua	Plaza zaharra	22:00
	23	Kontzertu solidarioa: Aitzuri Abesbatza	Eliza	20:30
	24	Xake txapelketa: Deba hiria	Foruen plaza	-
	Kontzertua: Euskal baleontziak eta musika lurraren mugaldean	Eliza	20:00	
29	"Deba eta San Roke" liburuaren aurkezpena	Plaza zaharra	21:30	
30	Bandaren kontzertua	Klaustroa	20:00	

abuztua	4	Udako Kontzertua: "Bay Trío"	Klaustroa	20:00
	5-6-7	III. Surfing Deba Festa	Hondartza	-
	6-10	Itziarko Kopraixak	Itziar	-
	11	Udako Kontzertua: "Ana Belén García & Hondore Abesbatza"	Eliza	20:00
	14	San Roke jaiak	Deba	-
	25	Udako Kontzertua: "Andoni Mercero"	Klaustroa	20:00

	Eguna	Ekintza	Tokia	Ordua
iraila	2	Iturri ondoan: "Zuek"	Plaza zaharra	21.30
	6	San Nikolasak Lasturren	Lastur	-
	9	Helduen kontaketak	Agirre jauregia	-
	10	Kale margo lehiaketa	Kalez kale	-
	16	Iturri ondoan: "Hiri asko bere baitan"	Plaza zaharra	21:30
	23	Iturri ondoan: "Begiradak-3"	Plaza zaharra	21:30
	24	Euskal Jaia	Kalez kale	-



Iturri zaharretik

Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten, beti berri den ura
betiko iturri zaharretik.

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen, beti berri den hitza,
betiko hizkuntza zaharretik.

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen, kantu zilarra entzuten,
beti berri den kantua, betiko isiltasun zaharretik...

(J.A. Artze)

